



BILDU Talde Politikoa
Grupo Político BILDU



Ijentea, 1 - Tel. 943481027 – Faxa 943481720 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Donostia/San Sebastián a 13 de abril de 2015

Donostiako Udalak eta ETS erakunde publikoak 2010eko abenduaren 15ean eta 2012ko uztailaren 16an sinaturiko hitzarmenen bitartez Sagastieder plaza berritzeko prozesua hitzartu zuten.

Bi hitzarmen hauen bitartez 1.720.915,23 eurokoa izatea espero zen lan batzuen kostua banatzen zen. Horretarako ETSk 1.500.000 euro jarriko zituen eta Donostiako Udalak 220.915,23 euro, eta hortik gora egon zitekeen edozein kostu. Beraz, funtsean, Donostiako Udalak 1.500.000 goitiko kopurua jartzera behartuta egongo zen.

Azkenean, baina, obraren kostua uste baino gutxiagokoa izan zen, eta ETSko Lehendakariak Udalari jakinarazi zion bere gain hartuko zuela obraren finantziazio osoa, aurreikusita zituen 1.500.000 euro horien barne sartzen baitzen.

Are gehiago, abuztuan Gipuzkoako egunkari batean ETSko Lehendakariak herritar guztioi komunikatu zigun ETSk bere gain hartuko zuela 1.500.000ko kopuru hori. Gainera ETSko 2012 eta 2013 memorietan ez da azaltzen Donostiako Udalak ordaindu gabeko kopururik duenik ETSrekin, beste erakunde batzuen 3.000 zorra azaltzen den bitartean.

Hori guztia hala izanda, egun ETSk 2012an amaituriko obra horren zati bat ordaintzea eskatu dio Donostiako Udal honi, ETSk berak bete ez duen hitzarmena medio. Donostiako Udalari eta Donostiako herritarroi ordaindu beharko ez genuela esan ostean, prozesu guztian zehar Donostiako Udala bere zatia ordaintzen joateko fakturak pasa gabe obra egin ostean, orain Donostiako Udalari ordainketa hori egiteko eskatu zaio.

Eusko Jaurlaritzak jakin beharko luke zein garrantzistua den nork emandako hitzari eustea. Eta herritarren aurrean obra bat bere gain finantziatuko dela saldu ondoren gero diru hori beste administrazio bati eskatzea ez da bidezkoa. Baina batez ere, gertakizunek argi uzten dute ETSk hartu zuen erabakiarekin aurrera egin zuela. Ez zuen fakturarik pasa, ez zuen Donostiako Udalaren ekarpenik aurreikusi bere 2012ko memorian, publikoki esan zuen bere gain hartuko zuela kostua,...

Egun, ETSk Donostiako Udala auzitara eramateko mehatxua egin du. Uste dugu ETS ez badago ados hartu zuen erabakiarekin, barruan konpondu beharko duela gaia. Baina ez da zilegi Udal hau bere erabakien erantzule egitea eta bere arduradunek harturiko erabakiak beste erakundeei leporatzea.



BILDU Talde Politikoa
Grupo Político BILDU



Ijentea, 1 - Tel. 943481027 – Faxa 943481720 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Horregatik guztiagatik, BILDU Udal Taldeak honako MOZIO ARRUNTA aurkezten du Udalbatzan eztabaidatzeko:

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari/ETSri eskatzen dio Udal honi eta Donostiako herritarrei emandako hitza bete dezala, eta bere gain hartuko zituela aldarrikatu zituen gastuak bere gain har ditzala.
2. Donostiako Udalbatzak irmoki dei egiten dio ETSri bere irizpide aldaketen ardurak besteei leporatu ez diezazkiela eta uko egin diezaiola Donostiako Udala auzitara eramateari

SIN.: Josu Ruiz Martin
BILDU Udal Taldearen Bozeramailea

IFK/
CIF/
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
10655
n 1
-1111-
06